

Hurbiltasun-zatidura irradi-telebistetako kazetaritzan: praktika desegokia

Iñaki Zabaleta Urkiola
EHUko irakaslea

Irrati edo telebista-estazio baten izaerak, nortasunak eta helburuek erreferentzi markoa mugatzen, neurtzen, finkatzen dute, eta fondoak zein forma, tipoa zein estiloa, maiztasuna eta hedapena babesteaz gain, aurkezten diren informazioen erliebea eta kokapena, hauei dagozkien albiste-zerbitzuak, egiten den kazetaritza-mota eta profesionalen lana, konfiguratu egiten dituztela ematen du, "giza-faktoreak" errealitate telebistatuaren egile diren heinean (Bennet 1983; Epstein 1973; Zabaleta Urkiola 1994). Hau guztia bereziki gizar-tearen beraren gatazka sustantiboetan da nabarmen, non entzuleak, azpi-azpian dagoen gatazka aditzera ematen duten gertakarien subjektu eta parte diren, sarri askotan etika eta deontologiaren kalterako.

The character, personality and the aims of a radio- or television-station limit, measure and establish its reference-framework; it seems that, apart from protecting the content and the format, the type and the style, and the frequency and the diffusion, they also configurate the relief and the location of the informations presented, the news-services of these informations, the type of the journalism done and the work of the professionals, when "human factors" are responsible for televised reality (Bennet 1983; Epstein 1973; Zabaleta Urkiola 1994). All this is specially remarkable in the substantive conflicts in society, where audiences are both subject and part of the events which explain the disputes deep down in the question, quite often to the detriment of ethics and deontology.

Albistearen osagarriak

Aurreko baieztapen horrek, irratitelebistetakoinformazioari buruzko ikerketa-munduko literaturan oro har onartuta egonik, hertsia eta menpeko tokian zein kontestuan lekutzen ditu, albiste bihur daitezkeen gertakariak *status quo*-ren alterazioa oinarri duten osagarri-sorta bat eduki behar dutela sintetizatzen emanak dauden ikerketa eta praktika profesionalak (Harris eta beste 1981), zeintzuek magnitude informatiboa neurtzeko sailkatuak izan behar duten (Zabaleta Urkiola 1993). Aipatu osagarriak eta beren magnitudeak hauexek dira: *gatazka*, osagarri nagusienetakoa, bere magnitudean, aurrerakuntza, hondamen edo dakartzan ondorioen bidez kalifikatu behar dena; agerian dauden pertsonaiekin baino lehen (asistentek, protagonista baino gehiago) gertakariarekin erlazionaturik egon behar duten *eminentzia* zein *prominentzia*, nahiz eta agerian dauden pertsonaien erliebeak gertakaria nabarmen lezakeen; *temporalitatea* eta *hurbiltasuna*, gertakarien erliebea aktualitate-gradu eta hurbiltasun fisiko zein kulturalaren bidez ebaluatzen laguntzen dutenak, zeintzuk desiragarriak izan arren ez baitira beti beharrezkoak –gizarte barruan gatazka sustantiboa existitzen ez den bitartean bederen– kasu horretan, egoera errotoik aldatzen baita, lan honetan *hurbiltasun-zatidura* deitutakoa ezartzen delarik, hots, kazetaritzaren teoria eta praktikaren elementu asaldatazailerak; *berritasuna* eta *barietatea*, zerbaiten izaera ezohiko eta nobedosoari dagozkionak alde batetik, eta gertakarian agerian dauden osagarri notiziosoei buruzkoak, bestalde; *giza interesa*, aipaturiko osagarriarik ez eduki arren alde gizatiar emoziozko eta positiboa duena, zeinaren trata-

mentu estilistikoa bera desberdina baita.

Era berdinean, beste zenbait autorek (White eta beste 1984) hiru kontzeptutan uzten dute: *inpaktoa*, gertakariaren ondorioekin erlazionatuta; *interesa*, lehengo berritasun, giza interes eta, neurri batean, prominentzia eta eminentziari dagozkionak; *informazioa*, aurrerakuntza eta hondamendia hartzen dituenak; *bisualitatea*, telebistari mugatuta, goian aipatu eta gertakariaren edukiari dagokion osagarri-eskalatik kanpo dagoena. Maiz, albiste izateko merezimendurik ez duten gertakariak, beren bisualitateagatik ematen dira.

Hiru tresnak

Aipatutako osagarri hauek guztiak, erreflexioz edota intuizioz, egoera bakoitzari naturaltasun osoz egokitzen zaizkio, gertakari banako zein singularrari, estazioa, irratitelebista-konpainia gidatzen duten printzipio zein xedeek kolisionatu gabe. Beraz, ikus-entzunezko profesionalak, hiru mota-tako tresnak erabiltzen, “aktualizatzen” dituzte kontestu nahiz egoera zehatz bakoitzean:

a. Gertakari bat albiste bihurtzeko definitzen eta erabakitzen laguntzen duten osagarrien tresna: *albistearen osagarriak*

b. Mendebaldeko eremu akademiko eta kazetaritzakoan onartzen diren irizpide etiko zein deontologikoen tresna: *kazetaritzaren etika* eta *deontologia*.

c. Komunikabide baten printzipio, estrategia eta helburuak, zeintzuk desberdinak diren euskarriaren arabera (inprimatuak *versus* ikus-entzunezkoak) eta irratitelebistaren kasuan,

dagokigunean alegia, kontrol eta zerbitzu publikoaren trazoak dituen direktiboaren eta honek garatzen duen programazioaren etika eta deontologia definituko dituzten trazoak: estazioaren estrategia eta direktiboaren deontologia.

“Errealitate telebistatua” eta “Errealitate erreala” desberdinak direnik inork ukatuko ez duelakoan, eta telebistak errealitate errearen eta ikus-entzuleen artean *bitartekari* huts ez dela onartu ezezik, honi errealitate propio eta ezberdina sortu eta eskaintzen dio, jakinik, askotan aipatu entzuleek eskura duten errealitate bakarra, batik bat kazetaritza eta informazioaren munduan kasurik gehienetan entzuleak ez baitira gertakarien lekuko (Austin 1983). Baieztapen hau onetsiz, beraz, aditzera eman beharra daukagu hiru tresna hauen, hiru irizpide hauen ihardueraz, eragozpen eta istilu handiegirik gabe agertzen diren hiru eszenatoki esistitzen diren bezalaxe, badirela beste zenbait eremu non era askotara kolisiona dezaketen, *hurbiltasun-zatiduraren* eraginez, kazetari profesional, irratitelebista-estazio eta entzuleen arteko hurbiltasun fisiko, kultural zein psikologikoaren eraginez;

entzuleak, aldi berean, gatazkaren subjektu eta parte baitira. Kasu honean, benetako erreferentzi maila, beste biekiko prominentziazko tresna, eguneroko praktika periodistikoa gidatzen duela ematen duena, irratitelebista-konpainiaren estrategia eta ildo editorialarena da, direktiboaren etikatik diseinatuta.

Kazetariaren etika eta deontologia

Irratitelebistako kazetariaren iharduera profesionala gidatu behar duten printzipio eta irizpide etiko eta deontologikoak, oro har,¹ urteetan zehar definitu eta gauzatu dira, kazetarien eskura dauden jokatzeko printzipio-corpora bat mamitzeraino² (Black and others 1993). Printzipiook, postulatu-sail labur batean laburbil daitezke:

a. *Erantzukizun indibiduala* eta kazetariaren indibidualizazioa publikoaren aurrean, kazetaritzaren etika eta deontologia betetzeko.

b. *Objektibitatea*³ informazioan, gertakariaren aurkezpen osoa den heinean, ikuspuntu desberdinen *errespetuzko* inklusioa, subjektuen eta be-

1. Irratitelebista publiko zein pribatuetako kazetariak, irizpide etiko eta deontologiko berdinak eduki behar dituzte. Diferentzia, izatekotan, agian betekizunaren exigentzi mailan egon daiteke, entzuleek, irratitelebista publikoko kazetariak, izaera publikoagatik hain zuzen ere, zorroztasun, leialtasun eta dibertsitate handiagoa eskatu ahal dietelako.

2. Kazetarien kolegio eta elkarteek, unibertsitateetako departamentuek eta zenbait agerkari akademikok, bai eta zenbait kazetaritza-enpresak edota berauen erredakzio-kontseiluek publikatzen dituzten dokumentu eta agiriri idatzietan ere, deontologia eta etikari buruzko arauak agertzen dira, estilo liburuak eta/edo jokatzeko kasuistika.

3. Kazetaritzako objektibitatearen sorrera iluna da, baina batzuek *The Sun* (1833) egunkariaren sorburuan jartzen dute, New Yorken, Benjamin Henry Day zuzendari zelarik, zeinek objektibitatearen ideia garatu zuen (Emery and Emery 1988). Urteekin, gorpuztu egin zen kazetarien artean erreferentzi deontologiko gisa eta aspirazio profesional gisa. 1974an, *A Free and Responsible Press*, Hutchins batzordearen informeak (*Commission on the Freedom of the Press*), indar gehiago eman zion eta prentsa librearen bost ezaugarriak finkatu zituen (euskarri guztietakoa, jakina). Robert Udickek planteiatzen duenez (Udick 1993), objektibitatearen paradoxa, batzordeak planteiatu zuen moduan, ikuspuntuaren dibertsitatea laburtzean zegoen. Horregatik, Hutchins batzordearen informarean puntuak onartu eta betez, Herbert Gansek, *perspektiba anitzeko kazetaritzaren* metodo berria proposatu berri du, dibertsitateetik abiatuz, medioek foro publiko moduan funtzionatzen laguntzen zuena (Gans 1980).

rauen irudiaren *errespetuzko* trataera eta kazetariaren iritziaren esklusioa ahal bezain *handiena* da, kazetariak jo dezakeen xedea, jokabide ideala, errealtate bitartekatu eta interbenitu ororen giza-muga eta muga materialak ahaztu gabe, gehi haren ageriko subjektibitatea.

c. *Prezisia eta zehaztasuna* informazioaren datuetan zein iturriei dagozkienean.

d. *Inpartzialitatea eta errespetua gertakariaren* parte zein ikuspuntu guztiekin, eta berauen *inklusioa* informazioan.

Liburu honen orrialdeetan, Antonio Alvarez Solís-ek (Alvarez Solís 1994) ederki asko definitzen du kazetarien lana eta deontologia, esanaz:

Berrar dezagun definizioa⁴: kazetaritzaren objektibitatea gertakariak formalki gertatzen diren bezala ematean dago, produzitzen dituen iturriaren izpirituarekin ados eta azalpen zuhurraren arabera.

Lehen esan den lez, printzipio hauek betetzeko izpiritua azpimarragarria izan daiteke eguneroko kazetaritza irratitelebistatuan, baina arazoak

sortzen dira *hurbiltasun-zatidura* agertzen denean, hau da, gizartean gatazka sustantiboak esistitzen direnean.

Konpainiaren estrategia eta direktiboaren etika

Dagoeneko, kazetari profesionalak bere lana garatzeko erabiltzen dituen bi tresna-motaren oinarriak azaldu ditugu; orain, hirugarrenari buruz gogoeta egiteko unea da, konpainia edo irratitelebista-estazioaren estrategia, printzipio eta xedeei buruz alegia –direktiboen etika eta deontologiatik erabakiak–, eta profesionalengan, kazetariengan duten eraginari buruz.

Bistakoa izan daitekeen arren, gogoratu beharra dago prentsa idatzi eta irradi zein telebistako ikus-entzunezkoen oinarri kontzeptualak ezberdinak direla erantzukizun sozialari dagokion mailan, nahiz eta *interes, egokitasun eta beharizan publikoa* exigitu ahal zaizkien asebetetzeari dagokionean.⁵ Irrati zein telebista-estazioak, eta ondorioz zuzendaritzako erantzuleak, hau da, bertako direktiboak, kazetariak

4. «Nire ustez, objektibitate periodistikoa, gertakariak formalki gertatzen diren bezala deskribatzen direnean dago, –bilera politiko bati buruzko datu fisikoak, adibidez–, gertakari horiek ekoizten dituen iturriaren izpirituaren arabera –ezin daiteke itzuli periodistikoki, adibidez, eskuineko ekintza bat ezkerreko militante-mentalitatearekin– eta adierazpen zuhurra eginez, hau da, kazetariak deskribatzen dituen gertakari, egintza edo ideiei buruz, irizpide propioa egiteko irakurleak duen autonomia errespetatuko duen moduan adieraziz».

«Zentzu honetan, ezin dizuete gorde erabat txunditurik uzten nauela, lankideren batek, elkarriketa egitera joan behar eta entrebistatuari erasotzeko edo losintxatzeko prestatzen duenean animoa. Pertsonaia bat ezagutu nahi duen publikoari, hark bere burua erakutsi nahi duen modura erakutsi behar zaio, berak bere buruaz transmititu nahi duena transmitituz. Erantsi beharrik ez dagoenez, horrek ez du kentzen, gero, egunkariak edo kazetariak berak, beste zutaberen batean, argi asko diferentziaturik, pertsonaia horri buruzko iritzia eman ahal izatea. Baina iritzia, ez informazioa. Informazioa, pertsonaia den bezala publikoarengana helaraztea da; hori bai, errelatoaren adierazpen zuhurraren bidez, irakurleak hainbeste sumintzen duen egungo lengoia erradikala baztertzuz» (A. Alvarez Solís).

5. Estatu Batuetako irratitelebista-sistema, aitzindaria, eta FFC delako doktrinarenaren arabera (*Federal Communications Commission*) eta dagozkion erresoluzio judizialen harian, interes publikoan oinarriturik sorturiko aintzindaria, idazlan honen helbururako azpimarragarri eta egoki diren hiru

baino behartuagoak daude aipatu sustantibo *publiko* –ez *publikoarenak*–, famatu hauek betetzera, ezpairik gabe baitagozkie kanal-urritasunaren eta *fairness doctrine*, hau da, inpartzialitatearen doktrinaren printzipio saihestezinak (Foster 1982). Inpartzialitatearen doktrinak⁶, zera planteiatzen du: programa bakoitzak, eta ez soilik programazio osoak, interesa, egokitasuna eta beharizan publikoak errespetatu behar dituela, «garrantzi publikoa duten gai eztabaidatsuei dagokien denbora dedikatuz, inpartzialki arituz, ikuspuntu kontrarioari aukera arrazoigarria eskainiz» (Friendly 1977: 13). Doktrina hau, estazioei exigitzekoa, kazetariaren deontologiaren parekoa da, helburu berdintsuak bilatzen dituelako, nahiz eta programa eta programazioari dagokion. Kanal-urritasunaren printzipio saihestezina honela bereiz daiteke:

a. *Irratiespektroan kanal eta maiztasun-urritasuna dago*, eta, beraz, irrati eta telebista posibleen kopurua ere mugatua da. Kontzeptu hau ezin zaio prentsa idatziari aplikatu, nahi duen orok, legalki eskatzen badu, sort baitezake komunikabide idatzia. Daukan muga bakarra *kontingentea* da, ekonomikoa kasu, eskaria eta eskaintzaren legeak gidatuta, baina ez saihestezina, irratilebistan gertatzen den lez.

b. *Irratilebistaren uhinek gizarte-jabegoa dute* eta ordezkatzeko dituen gobernuak erregulatzen ditu irratilebistako konpainiak –erabiltzeko, ez jabetzeko–, emandako lizentzi kontzesioen bidez.

c. *Kanal-urritasunaren kontzeptuak*, irratilebista-estazioa jarri nahi duen edozeinek irrati-maiztasuna edukiko duen –eta dirua edukiko duen– egunean solik galduko du balioa.

Printzipio biak kontutan harturik, ohartarazi behar dugu, betearazteko mailaren azken erantzukizuna, estazioaren exekutibo eta arduradunek dutela; beraz, beren etika eta deontologia etengabe dagoela proban, nahiz eta gehienetan hau publikoak ez igarri, edo ez jakin.

Chester Bernardek, exekutibo eta direktiboei buruz duen lan klasikoan dioenez (Barnard 1966), konpainia bat kontrolatzeko modurik efektiboena, ez da eguneroko erabakietan parte hartzea, enpresaren balore premiazkoak langileengan induzitu eta sartzea baizik. Baloreen eta xedeen inkulkazio hau, era askotan berriztatzen da etengabe: komunikazio informala eta erlazio hierarkizatua dela, erantzukizun-postuetatik iogoera-jaitsieraren zeharkako esangura dela, formazio-ikasketak eta, arraroago, oharpen esplizitu eta zuzenen bidez, besteak beste.

Ildo berean eta aipatu liburuan bertan, beste autore batek, Alberto Aranbarrik, arrazoi txalogarriz, irratilebista-enpresaren direktibo edo kudeatzaileak informazio telebistatua gauzatzean duen *zuzeneko* eragina ahaztu egiten duen arren, onartu egiten du, aldiz, erabakitzeke irizpideetan pisu handia duela, azken finean,

ustekizunetan eraikitzen da: 1) «Irratilebistaren helburu oinarrikoena, publikoak informatu eta informatua izateko duen eskubidea», «axiomatikoa» da; 2) Ideia hauek eta informazioa, «iturri desberdin eta antagonikoetatik etortzea», «esentziala da ongizate publikoarentzat»; 3) Irratilebistak, batez ere, erakunde lokal gisa funtzionatu behar du, tokian tokiko lizentzien bidez (Epstein 1973: 47-49).

6. Estatu Batuetan mende honetan zehar garatuta, jurisprudentziak onetsita eta nazioartean onartuta, nahiz eta desarautze- eta komertzializazio-garaiotan zertxobait ahaztuta.

kazetariak bere iharduera periodistikoan, onartu eta erabili egin behar dituen balore eta jokamoldeetan⁷.

Autore askok (Epstein 1973, McCavitt eta Pringle 1986: 229), azpimarratu dute, enpresaren printzipio eta xedeak, aipatu den moduan direktiboek inkulkatu eta kontrolatuak, eguneroko ekinbide arruntean, hots, informazio irratitelebistatuaren elaborazio eta aurkezpenean, transmititu eta kontrolatu beharra dagoela. Horretarako daude informatiboaren prestakuntzan erantzukizun-funtzioak dituzten kazetari profesionalak, editore eta sailburuak tarteko.

Beraz, begibistakoa da irratitelebista-estazio baten irizpide eta xede orokorrak –normalean gizarte- eta filosofi-maila oso jasokoak–, enpresaren interes, ildo editorializat, *interpretatu eta transmititzen* dituztela direktiboek eta kudeatzaileek. Begibistakoa da baita ere, interes hauek –ekonomiko, politiko eta sozialak– eta dagozkien ildo editorial informatiboek ez dutela beti eta zirkunstantzia orotan bat etorri behar kazetari profesional baten irizpide etiko eta deontologikoekin, nahiz eta orokorrean egokigarriak izaten diren.

Hau dela eta, erantzulea, espazio informatiboaren edo informatiboaren editorea, hots kazetaria, da, konpainiaren interesak eta ildo editoriala asetzeko edota kazetaritzaren irizpide etiko eta deontologikoa betetzeko *dilema* aurki dezakeen lehena.

Errealitatean, orain arte esanda-koagatik jaso daitekeenez, gutxitan esistituko da dilema hori, editoreak, direktiboek aukeratuta, igota eta sarituta, zabal-zabal onartzen baititu hauen xedeak, gertakari notiziosoak argi horretan interpretatuz. Gainera oso probablea da, direktiboekiko harremanen bidez, konszienteki gizarte-ko gertakariak interpretatzeko eta albiste bihurtzeko irizpide amankomunak konpartitzea. Kasu hauetan guztietan, gehienetan seguru aski, editorearen etikak eta deontologiak ez du sufritzen, ez du kirrinka egiten, babestuta geratzen da.

Hierarkian beherantz eginik, dilema horrekin topo egin dezakeen bigarrena, gertakariaren berri ematera doan kazetaria izan daiteke. Honek, oso probableki, medioaren ildo editorialera egokitu du bere lan periodistikoa, bat datorrelako edota editoreak orientabideak eman dizkiolako, deontologiari dagozkionetan gogoeta egin beharrik izan ez dezan, talde-giroaren presioak horretara behartzen duelako edo eta nagusiekiko gatazkak saihestu nahi dituelako karrera profesionalean igotzeko; beraz, horregatik guztiagatik, barneratu egin du eta psikologikoki onetsi, enpresaren xedeon, ildo editorialaren ontasuna, zuzentasuna eta beronen irizpide deontologiko profesionalekiko komunztadura. Arrazoiaren ugaritasuna zabala da, baina ondorioa bakarra: enpresaren arrazoiak, bere ildo editoriala dira, deontologia egokitzeko erreferentzi markoa, eta ez alderantziz. Edonola ere, kazetariak ez du etendura handiegirik pairatzen.

7. «Direktiboaren boterea, hierarkia-mailak profesionalki ongi erabiltzean eta entitateak defendatu behar dituen balore-multzoko bat, sinesgarritasunez, bata bestearen atzetik, transmititzen jakitean dago. Zehatzago, telebistako direktiboak, botere eskasa du informatiboan eta ia ezer ez albiste konkretu bati buruz; ostera, ildo informatibo nagusiak markatzeko gai izan behar du, profesionalki lanik onenak bultzatu, autoestima eta erantzukizun-zentzua eragin, segitu behar den bidean konbikzioz saiarazi, eta atrakzio-poloen artean kuntze izan» (Aranberri 1994).

Dilema biei aurkeztuko zaie, editoreari edo erantzuleari bereziki, *hurbiltasun-zatidura* deitzen duguna ageriarazten duen gatazka sozial sustantiboa esistitzen denean. Nolanahi ere, kazetari elaboratzailearen erantzukizun etiko eta deontologikoaren parte bat, informatiboaren kazetari editorearen erantzukizunean estalirik gelditzen da, honek hartzen baititu inpaktorik handieneko erabakiak.

Hurbiltasun-zatidura informazioan

Gorago aurreratu ditugu kazetari profesionalak (edota direktiboak), konszienteki edo inkonszienteki, hurbiltasun-zatidurara jotzeko duen zenbait aurrekari nagusi: hots, gatazka sustantiboa gizartean, non biztanleen zati dexente bat, hauteskunde-prozesu erregularretik kanpo egon arren, gizartean indarrean dagoen botere finkatuaren antolakuntza ukitzen duen arazo bat dela eta, gainontzekoekin enfrentatzen den; biztanleen zati dexente hori albiste bihur daitezkeen gertakarien subjektu direla, eta aldi berean, aipatu albisteak kontsumitzen dituen audientziaren parte direla.

Aurrekari horiek gertaturik, kazetari profesionalak, editore zein informazioaren elaboratzaile zuzen, eta bereziki lehenak, hurbiltasun-zatidura aplikatzen du, honetan datzana hain zuzen ere: kazetaritzaren irizpide etiko eta deontologikoen erredukzio pragmatikoa, hedagarria, justifikatua eta adostua, kide errekusatzaileen taldeak subjektu gisa parte hartzen duen

iharduera informatiboan. Irizpide hauek erabiliak lirateke, eta normalean badira, gatazka sustantziala esistituko ez balitz. Aipatu erredukzioa pragmatikoa da, utilitatean oinarriturik dagoela ematen duelako; hedagarria, sorrera eta erreferentziak gatazka zehatz batean eduki arren, bere erabilpen praktikoa errekusatzaileen taldearen beste zenbait eremutara eta ekintzetara hedatzen delako; eta adostua, ordena sozialaren ongizateari dagokiola ematen duelako⁸. Erredukzio hau zenbait teknika periodistikoren bidez lortzen da, gehiago ala guttiago elaboratuak eta konszienteak, zeintzuetatik ondorioztatzen den, irizpide etiko eta deontologikoak, botere finkatuak zaindutako ordena sozialaren defentsarako diren interes aipagarriekiko, nahiz eta beti ez justifikagarriekiko, menpekotasuna.

Estazioaren direktiboak ere, modu sotilagoz, berezko iharduera eta funtzio propioak medio, praktikan jar dezake hurbiltasun-zatidura. Prebentzioa da teknikarik efikazena, eta noizean behin, zentsura zuzena.

Esan beharra dago, baita ere, sarritan, kazetari batek hurbiltasun-zatidura aplikatzen duenean, bere gain izan dezakeela duela zenbait urte Philips Davisonen esandakoaren eragina, hots, "*hirugarren pertsonaren efektua*"⁹, zeinaren arabera, medioetako agente zein profesionalek uste duten medioen mezuek ez dutela beraiengan inongo efektu nabarmenik, ez beren erabaki informatiboetan, ez eta irizpide deontologikoen aplikazioan ere,¹⁰ baina bai, aldiz, besteengan,

8. Elkarte eta herrien historia, antzeko argudioz beterik dagoela dirudi.

9. Psikologiako beste zenbait autorek, "*inpakto inpertsonalaren*" efektua deitzen dute, (cf. Atwood 1994).

10. "Zu" eta "ni", gu, kazetari -edota direktibo- konszienteak "garenez", irizpidez beteta, medioen edukiaz eragin ez gaitzaten saiatzen gara. Aldiz, entzuleak, zuzenean eraginda egon daitezke.

entzule gehienengan eta publikoaren-
gan (Davison 1983).

Hurbiltasun-zatidurarako teknikak

Hurbiltasun-zatidura aplikatzen den kasuetan erabiltzen diren teknika periodistikoak, historian zehar garatu-tako giza ezagupenaren zenbait eremu ezberdinetatik datoz¹¹ zeintzuk masa-komunikazioko mende honetan, Bigarren Mundu-Gerran eta ondoren hagitz aplikatu dituzten¹². Hona hemen teknika hauek:

- a. Dualitatea.
- b. Karakterizazio selektiboa.
- c. Indibidualizazioa *versus* batasuna.
- d. Laxotasuna *versus* gogortasuna.

a. *Dualitatea*: gizartea “gu” eta “haien” artean zatitzea. Zatiketa hau, garatuta dago, eta sarri oso argi definituta; inferentzi lan gutti eskatzen du komunikabideen mezu informatibo eta mezuzkoetan, nahiz eta bere eguneroko delimitazio sozialak probabilitate gutti duen. Benetan, perzeptzio-eremuan gauzatzen den konstrukzio teorikoa da, eta ondorioz, geroko joera aktuzio sozial eta periodistikoetan. Honela, kazetari profesionalek bi gizarte-kategoria hauek tentsio sozialeko une askotan erabiltzen dituzte, gertakariak eta hauen subjektuak barnetik kontestualizatzeko, hauei era egoki batean banatutako esangura soziala asignatzeko, kazetaritzako erabakiak justifikatu eta printzipio etiko zein deontologiko propioekin barne-kontraesanetan ez jausteko. Era

berean, “gurekin” erabat identifikatzen ez diren gizarteko talde edo kideak, “haiek” multzoan sartu edo erlazionatzeko joera dago.

b. *Karakterizazio selektiboa*: “guri” esangura positiboak asignatzea eta “haiei” negatiboak, designazio-errepikapenen bidez eta estereotipoen sorkuntzaz (Jakcson Harris 1989; Raboy and Dagenais 1992). Gizartearen zatiketaren hurrengo urratsa da. Honetan datza, hots, “gu”, ontasuna, justizia, legitimitatea, ordena soziala, erabiltzen den biolentzia saihestu edo legitimazioarekin parekatzean eta kritikatzeko gaituena “haien” kategorian sartzean; aldiz, “haiek” behin eta berriro identifikatzen dira medioetan txartasuna, injustizia, legitimitaterik eza, ordena sozialaren subertsioa, eta biolentzia irrazionalarekin (dagoeanean), gizarte-masak “gure” *etsaitzat* har ditzaten.

c. *Indibidualizazioa versus talde-batasuna*: Gertakari notiziosoaren erantzukizuna “gureak” direnengan jausten denean, egintzen eta subjektuen indibidualizazio eta pertsonalizazioa bilatzen da, “gureari” buruzko erreferentzia baztertuz; aldiz, (aipatu dualitate teknikaren bidez) “haiek” kategorian kokatuta izan direnak, parte hartu eta erantzukizunak dituztenean, asignatu zaizkien trazoak eta estereotipoak gordetzen dituen “haiek” kontzeptuaren batasunean itzuli eta batzen dira. Era berean, “gure” kideak direnean gertakarien subjektuak, edota pairatzen dituztenean, beren gizatasuna eta izaera indibiduala gorapatzeko da, “haienak”

11. Erretorika, fenomenologia, psikologia soziala, besteak beste (cf. Aristóteles 1971; Heidbreder 1984; James 1984). II. Mundu-Gerrako propagandak, asetzaraino erabili zituen teknika hauek.

12. Ikus liburu honetan bertan W. Phillips Davisonen atala, propagandari buruzkoa. Desinformazio-teknikei buruz, cf. Fraguas De Pablo 1985.

direnean, aldiz, deshumanizatu eta objektibizatu egiten dira¹³.

d. *Laxotasuna versus gogortasuna*: Kazetariak laxotasun nabarmenez erabiltzen dituzte irizpide etiko eta deontologikoak “gureak” direnei dagozkienean, erabakiak hartzeko prozesuan “gurearen” ontasuna, legitimitatea, eta ordena sozial positiboa oso kontutan hartzen baitituzte, eta jarrera horrek, “gure” taldekideekiko iharduera periodistiko etorkor, zuritzaile, eta ez kritikora darama; edota hori ezinezkoa bada, gertakarien ebidentzia txundigarriagatik, orduan indibidualizazioaren teknika erabiltzen da, gorago aipatutakoa alegia. Aldiz, irizpide deontologiko horiek gogortasun osoenaz aplikatzen dituzte, “haiei” badagozkie, “haiek” disidenteak baitira, ordena sozialaren asaldatzaileak, “gurearen” etsai.

Horrelako zerbait gertatzen da datuak iturrietara egokitzerakoan ere. “Gurearen” iturrietatik emandako zenbait egintzaren bertsioak ez dituzte kuestionatu ere egiten ez eta dudatan jartzen ere, eta askotan ez dituzte erlazionatzen ez kualifikatzen¹⁴; aldiz, “haiek” emandakoak, kuestionatu eta sinesgarritasun mugatua duten iturriei

egozten zaizkie.

Dudaezinezkoa da, kazetaria, bai gertakaria betetzen duena bai eta albistegia montatu eta erabakitzen duena ere, ez dela hutsetik abiatzen aipatu teknikak erabiltzeko, baizik eta psikologia sozia-lak erakarrirako *joera sozialaren* gainean euskarritzen dela¹⁵. Giltzarria honetan dago, hots, gizartearen zenbait estamentutan edota ikus-entzunezko medioaren zuzendari eta kudeatzaileek gauzatzen dituzten joera sozialek ez luketela kazetaria –editore nahiz erreportari-gidatu behar, baizik eta dagozkien irizpide etiko eta deontologikoek, bereziki eta batez ere, gizartearen gatazka sustantzialetan, horietan baitu zentzu osoa etikak eta deontologiak¹⁶.

Kasuistika

Hurbiltasun-zatiduraren inguruan –gatazka sustantzialetako erredukzio deontologiko gisa hartuta– aurki daitekeen kasuistika, oztopoz beterik dago beti, esentzian, bere bilaketa, analisi eta aurkezpen publikoak baztertu egin baitezakete, lehen azaldutako teknika berdinez tratatu, eta, ondorioz, “haien”

13. Biziki aipagarria izan ohi da, gatazka sustantziala dela eta hildakoak egoten direnean, medioek, “gu” sailekoak, trazo gizatiarrez deskribatzen dituzte eta bizirik gelditu diren familikoen xehetasunak, ugari. Aldiz, “haiek” sailekoak, hotzean informatzen dituzte, beren senitarteko edo familiei buruzko giza xehetasunik gabe.

14. Poliziak emandako bertsioa, adibidez, egia bailitza eskaintzen da eta horrela transmititzen («... gertatu da»), «poliziaren arabera, ...gertatu da» edo antzeko formula deontologikoetara jo barik.

15. W.I. Thomasi jarraituz, «joera soziala, zerbaitetarako edo zerbaiti buruzko disposizio psikikoa da; disposizio hau akzioaren barne-aurrekaria da, eta norberak, (lortutako) esperientziaren bidez eratzen du. Joera sozial hau elementu biologiko indiferentziatuak zein elementu espezifiko soziokulturalak integrazetik dator». Thomasek *egoeraren definizioa* sartzen du baina halako definizioak (egoerari buruzkoak) ez dira arazo indibidual hutsak: gizarteak kasu bakoitzean definizio posibleak zeintzuk diren definitzen ditu, Durkheimek *errepresentazio kolektiboak* deitzen zituenen antzekoak (Heidbreder 1984, 383. orrialdean aipatuta). Halaber, maiz, jokabide indibidualak ez du leialtasunez jarraitzen joera soziala eta dibergentzia honek barnean segi dezake zein jokamolde eta aktuazioetan azaleratu. Hemen kokatzen da kazetaritzako etika eta deontologia.

16. Eranskin gisa, komeni da kontutan hartzea, kazetariak hurbiltasun-zatidurari dagozkion teknikak hartzerakoan erabiltzen dituzten formato edo erredakzio-estiloak (Picard 1993: 101-106).

sailean kalifikatu, hots, disidentearen, estereotipoz txarra eta ontasun sozialaren etsai.

Gizartearen beraren kanpoko gerak, gatazka sustantzial horietako batzuk dira, zeinetan kazetaritzak eta kazetariak, konpainiak eta beren direktiboak, lan honetan aipatutako teknikak erabiltzen dituzten, batzuetan halabeharrez, ezarritako mugengatik; Pertsiar Golkoan¹⁷ gertatu zen bezala, Jugoslavia ohian gertatzen ari den bergislan¹⁸.

Baina, puri-purian, gizartearen zati batek, seguruaski ez handienak, aldaketa politiko esanguratsua planteiatzen duen tokian aplikatu eta praktikatzen da hurbiltasun-zatidura, zeinaren iharduna helburu politiko berdintsuak dituen talde armatu biolentoak, ustez indartu egiten duen. Horrelako gatazka sustantiboetan, Euskal Herrian gertatzen den bezala eta oraintsu arte Ipar Irlandan gertatzen zen bezala (Miller eta McLaughlin 1994), talde armatuaren kideak, talde politiko disidentearen lagun eta zaletuak, bai eta bi talde horietan kokatzen ez den zenbait jende, nahiz eta gizartearen gehiengoaren eta beronen buruzagien pautekin ere bat ez datorren, edota sinpleki, indefinizio horren kariaz zalantzazko bilakatzen diren sortarazten dituzten gertakariak direla eta, horiek guztiak, hurbiltasun-zatiduraren arabera jotzen dituzte eta, ondorioz, kazetariak –edota direktiboak, dagokion mailan– beren irizpide etiko eta deontologikoak

erreduzitzen dituen joera soziala mantendu eta kazetari-lana egiten du. Zentzu honetan, adierazgarria da oso, herri bateko komunikabide nagusiek, talde terrorista armatu berbera izendatzeko dituzten desberdintasunak, hauek aktuatzen duten herrian, eta besteetan, –kontserbadoreak, prestigioitsuak eta ordena sozialaren mante nuaren aldeko porrokatuak izan arren–, non, jakina, ez duen aktuatzen, eta ondorioz, ez dituzten beren ondorioak jasan behar; beraz, badute kazetaritzaren etika eta deontologia erabiltzea presio sozio-politiko edo girokorik gabe. Lehenengoek, oro har, «talde terrorista, asesino, kriminal, xede politikorik gabeak, etab.» deitzen dituzte; bigarrenak, aldiz, «talde separatista, gerrilari, abertzale», eta aldika «terrorista»¹⁹. Bistan da azken denominazio-mota honek, ez duela, berez, biolentzia legitimatzen, aldiz, kontestualizatzen eta gatazkaren erroak bilatzen lagun dezakeela, biolentzia terroristak erakusten duen gainazal hautsiaren ordez.

Bestalde, lehen aldian enuntziatutako joera eta praktika periodistiko hura –biolentzia fisikoa praktikatzen dutenekikoa alegia–, neurri batean uler badaiteke ere, dualitatearen definizio eta diferentziazio estremoak dagoelako hain zuzen ere –“gu” eta “haiek” etsai hutsak dira–, hurbiltasun-zatidura praktikatzeko arriskua egon daiteke –eta badago, datuek konfirma dezakete– eskubide osoz hiritar izanik, beste edozeinek adinako tratamendu

17. Vide Autores 1991; Autores 1994.

18. Vide Burns 1994; MacGregor 1994.

19. Adibide gisa, vide Zabaleta Urkiola 1991-92, non hamairu urteri buruzko analisisiek (New York Times, 1975-1987) haxe ematen baitute: gehien erabiltzen diren izendapenak direla «ETA», «ETA members», edo «Basque separatist», «Basque guerrilla» eta «Basque nationalist» halako sintagma nominala osatuz, hots, «organization/group/guerrilla ETA» (36 item informatibo kontabilizatuta). Askoz ere guttiago erabiltzen da «Basque terrorist», bakarrik edo «members of ETA» aurretik (12 albiste kontabilizatuta).

etiko eta deontologikoaren zordun; honela kazetariak eta gainontzeko medioek, begirune eta errespeturik gabeko, eta partzialak diren tratamendu informatiboak ematen dituzte. Praktikan, "haien" sailean kokatuak izan dira, eta, azken finean, *hurbiltasun-*

-zatidura erabiliko dute beraiekin, non *zatikizuna* etika eta deontologia diren, albistearen osagarriekin batera, eta *zatitzailea*, medioaren xede eta estrategiak, hori guztiori, kontextu sozial mugatu eta konfliktiboan, eta gizarteko joera nagusietan.

Bibliografia

- Alvarez Solís, A. (1994): "El periodista y el político en una sociedad fabricada de papel", in I. Zabaleta eta C. Peñafiel (arg.) *El Factor Humano en Radio y Televisión*, EHU-UPVko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- Aranberri, L. A. (1994): "La Influencia del Directivo sobre la Información y el Entretenimiento de la Televisión Pública y Privada", in I. Zabaleta eta C. Peñafiel (arg.) *El Factor Humano en Radio y Televisión*, EHU-UPVko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- Aristóteles (1971): *Retórica*, Instituto de Estudios Políticos, Madrid.
- Askoren Artean (1991): "Reporting the War", *Media Development* [Zenbaki berezia, urria], 1-52.
- Askoren Artean (1994): "The Persian Gulf War", *Journalism Quarterly* 71, 7-63.
- Atwood, L. E. (1994): "Illusions of Media Power: The Third-Person Effect", *Journalism Quarterly* 71 (2, Summer), 269-281.
- Austin, R. (1983): *Channels of Power*, Basic Books, New York.
- Barnard, Chester A. (1966): *The Functions of the Executive*, Harvard University Press, Cambridge (MA).
- Bennet, W. L. (1983): *News: The Politics of Illusion*, Longman, Londres.
- Black, J., Steele, B., Barney, R. (1993): *Doing Ethics in Journalism*, The Sigma Delta Chi Foundation and The Society of Professional Journalists, Greencastle (IN).
- Burns, J. C. (1994): "The Media as Impartial Observers or Protagonists: Conflict Reporting or Conflict Encouragement in Former Yugoslavia", in *Turbulent Europe: Conflict, Identity and Culture, EFTSC in Londres*, 15.
- Davison, W. P. (1983): "The Third-Person Effect", *Public Opinion Quarterly* 47 (Spring), 1-15.
- Emery, M.I., Emery, E. (1983): *The Press and America: An Interpretive History of the Mass Media*, Prentice Hall, Englewood Cliffs (NJ).
- Epstein, E. J. (1973): *News From Nowhere*, Random House, New York.
- Foster, E. S. (1982): *Understanding Broadcasting*, Addison-Wesley Publishing Co., Reading (MA).
- Fraguas De Pablo, M. (1985): *Teoría de la Desinformación*, Colección Mezquita, Alhambra, Madrid.
- Friendly, F. W. (1977): *The Good Guys, The Bad Guys and the First Amendment*, Vintage Books, New York.
- Gans, H. J. (1980): *Deciding What's News*, Vintage Books, New York.
- Harris, J., Kelly L., Johnson S. (1981): *The Complete Reporter*, McMillan P. Co., New York.
- Heidbreder, E. (1984): *Psicologías del siglo XX*, Paidós, Mexiko (DF).
- Jackson Harris, R. (1989): *A Cognitive Psychology of Mass Communication*, Lawrence Erlbaum Assoc., Hillsdale (NJ).
- James, W. (1984): *Pragmatismo (Pragmatism. A New Name for Some Old Ways of Thinking)*, SARPE, Madrid.

- MacGregor, E. (1994): "Crisis Reporting in the Satellite Age: The Gulf, Moscow and Bosnia", in *Turbulent Europe: Conflict, Identity and Culture, EFTSC in Londres*, 16.
- Miller, D. and McLaughlin G. (1994): "Reporting the Peace in Ireland", in *Turbulent Europe: Conflict, Identity and Culture, EFTSC in Londres*, 29.
- Picard, R. G. (1993): *Media Portrayals of Terrorism*, Iowa State University Press, Ames (Iowa).
- Raboy, M. and Dagenais, B. (1992): *Media, Crisis and Democracy: Mass Communication and the Disruption of Social Order*, Sage, Londres.
- Udick, R. (1993): "The Hutchins Paradox: Objectivity Versus Diversity", *Mass Comm. Review* 20 (3,4), 148-157.
- White, T., Meppen, A.J., Young, S. (1984): *Broadcast News Writing, Reporting, and Producing*, McMillian P. Co., New York.
- Zabaleta Urkiola, I. (1991-92): "Imagen y Tratamiento Informativo del País Vasco y España en el New York Times, 1975-87", *Journal of the Society of Basque Studies in America* 11/12, 57-83.
- (1993): "El Periodismo Audiovisual", in Dpto. de Periodismo (arg.) *Curso de Extensión Universitaria UPV-EHU en Vitoria-Gasteiz*, 10.
- (1994): "Private Commercial Television Against Political and Identity Diversity: The Case of Spain In The General Elections of 1993", in *Turbulent Europe: Conflict Identity And Culture, EFTSC 1994 in Londres*, edited by British Film Institute.